– ERE –

- ERE partikulak perpausaren atal bati egiten dio erreferentzia eta atal horren atzean kokatzen da beti.*(gaizki)

  ***Ere** Amaiak gaur pastelak ekarri ditu.**

  *Amaiak **ere** gaur pastelak ekarri ditu. (Josuk ere bai)*
  *Amaiak gaur **ere** pastelak ekarri ditu. (atzo ere bai)*
  *Amaiak gaur pastelak **ere** ekarri ditu. (ardoa ere bai)*

- ERE ez dugu inoiz aditz nagusiaren atzean ipiniko, baina bai menpeko esaldi baten atzean:

  *Amaiak gaur pastelak ekarri ditu **ere**.**

  *Aberatsa izan nahiko lukeela **ere** esan zuen.*

- EREk aditzari ere erreferentzia egin ahal dio:

  *Ikusi ez ezik, probatu **ere** egin dut.*
  *Oinez etorri gara, eta itzuli **ere** oinez itzuliko gara.*
  *Egun osoan ez dut ikusi **ere** egin.*
  *Hitz egin ez ezik, ez zaitut ikusi **ere** egin nahi!*

- ERE aditz trinko baten aurrean jarriz gero, aditzak BA- aurrizkia hartzen du:

  *Neuk **ere ba**daukat*
  *Kepa **ere ba**dator.*

ERE BAI / ERE EZ; BAITA ERE / EZTA ERE:

Mikel festara etorri da.
Neu ere bai. ➔ ... ERE BAI.
Baita neu ere. ➔ BAITA ... ERE.

Mikelek ez du egingo.
Neuk ere ez. ➔ ... ERE EZ.
Ezta neuk ere. ➔ EZTA ... ERE.

ERE partikularen bestelako erabilerak:

*Ez da inor **ERE** etorri.* (Hitz indargarri gisa)
*Ez dut **bat ere** ikusten.*
*Ez dut **batere** ikusten.*
*Honela izanda **ERE**, ez dut onartuko.* (Perpaus kontzesiboetan)
Hala ere, izan ere, nolanahi ere... (Hainbat esapide kontzesiboetan)
*Hori pentsatzea **ERE**!* (Harridura perpausetan)